

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure enpresaren funtzio nagusia muntaketa da, hozkailuei eskanerrak gehituko dizkiegulako. Horrela, eskanerdun-hozkailuak ekoiztuko ditugu. Hasieran, enpresa sortzen dugunean, produkzio txikia izango dugu, eta gure produktuan jendeak interesa jartzen badu, ekoizpena handituz joango da. Saiatuko gara ere, arazoak ditugunean guztiok elkarrekin konpontzen eta gure akatsetatik ikasten, eta dendetan erreklamazio orriak izango ditugu guztion eskura. Eta azkenik, sareko jardueri dagokionez, web orrialde sinple eta errez bat egingo dugu guztiok erabiltzeko gai izateko. Horregatik, sarean egingo ditugun jardueri ere garrantzia emango diegu, online denda ere izango dugu eta.